

22/2026 Irizpena, ekainaren 17koa: Honako arau honen ofiziozko berrikuspena: 253/2022 Ebazpena, azaroaren 16koa, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana, zeinaren bidez ezesten baita ...(e)k egindako eskaera, errotazio-txanden araberako araubidean lan egiteagatik konpentsazioa jasotzekoa.

Eskatzailea: Osasun Departamentua

Hizlaria: Rafael Lara González

Interesa: Ofiziozko berrikuspena: erabateko deuseztasuna berdintasun-printzipioa urratzeagatik; bidegabea izatea.

Honako arau honen ofiziozko berrikuspena: 253/2022 Ebazpena, azaroaren 16koa, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana, zeinaren bidez ezesten baita ...(e)k egindako eskaera, errotazio-txanden araberako araubidean lan egiteagatik konpentsazioa jasotzekoa.

Erreklamatzailerak funtzionarioa da, eta osasun publikoko ikuskatzailearen lanpostua betetzen du. 2022ko azaroan eskatu zuen berariazko osagarria handitzeko eskubidea onartzeko –bere maila edo taldearen hasierako soldataren % 6ko osagarria jasotzen du–, eta 2021eko azken hiruhilekotik, hura barne, eskaera aurkeztu arte kontzeptu hori dela-eta kobratu ez dituen zenbatekoak jasotzeko, baita hura etorkizunean kobratzeko ere, baldin eta hiruhilekoko osoko zenbaketan bere lan-ordutegia aldatzen bada lanaldiaren herena baino gehiago. Eskaera hori ezetsi egin zen hilabete horretan berean emandako ebazpen baten bidez. Ebazpen horren aurka, erreklamatzailerak gora jotzeko errekurtoa jarri zuen 2023ko martxoan, baina ez zen onartu epez kanpo aurkezteagatik. Hala, 2023ko uztailan, interesdunak eskatu zuen 253/2022 Ebazpena ofizioz berrikusteko, baliogabetzat jotzen baitzuen berdintasun-printzipioa urratzen zuelako [Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 47.1.a) artikulua]. Eskaera hori ez zen onartu 2023ko abenduak 30ko agindua baten bidez, eta erreklamatzailerak administrazioarekiko auzi-errekurtoa jarri zuen gora jotzeko errekurtoa ezestearen aurka, zeina ofiziozko berrikuspena onartu ez zuen agindua horren aurka jarri baitzen. Errekurtoa baietsi egin zen, eta epaiak agindu zuen auzi-jartzaileak eskatutako ofiziozko berrikuspenaren prozedura tramitatzeko; hala, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak 2025eko ekainean emandako ebazpen baten bidez abiarazi zen prozedura hori.

Erabateko deuseztasuna da administrazio-egintzak baliogabetzeko modurik larriena, eta ordenamendu juridikoa larriki urratzen den kasuetan soilik da bidezkoa. Administrazio-egintzak ofizioz berrikustea

salbuespenezkoa da, eta alegatutako akatsa zorrotz haztatu beharra dago. Interesdunak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 47.1.a) artikuluan oinarritu du berrikuspena, alegatuta Konstituzioaren 14. artikuluko berdintasun-eskubidea urratu dela. Eskubide hori urratzen da soilik baldin eta, egoera berdina denean, legea aplikatzen duen organoak tratatu desberdina, arbitrarioa eta justifikaziorik gabea ematen badu. Diskriminazioa dagoela hautemateko, baliozko termino bat egon behar da, funtsean berdina diren kasuen arteko konparazioa egiteko.

Araudi aplikagarriaren arabera (Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen araubide espezifiko arautzen duen Foru Legea, eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko lanpostuei dagozkien ordainsari osagarriak zehaztu eta esleitzen dituen Foru Dekretua), errotazio-txanden arabera lanak lanaldi arruntaren barnean egon behar du, eta ordutegi-aldaketek lanaldien herenetik gorakoak izan behar dute, hiruhilekoan zenbatuta.

Administrazioak berariazko osagarria handitzea ukatu egin zuen, iritzita interesdunak ez zituela betebeharrak horiek betetzen, 138E/2018 Foru Aginduan oinarrituta, zeinaren bidez ezetsi baitzen beste ikuskatzaile batzuen errekurtsoa, zeinak antzeko baldintzatan aritzen baitziren lanean, eta interesdunak erreklamaturiko igoera eta gainerako kontzeptu berak eskatu baitzituzten. Foru-agindu hori judizialki deuseztatu zen, baina horrek ez du esan nahi automatikoki berdintasun-printzipioa urratzen dela, interesdunak hori alegatu arren. Interesdunaren ustez, bere kasua osasun publikoko ikuskatzaile (albaitari) horien kasuaren berdina da. Haiek bide judizialetik lortu zuten osagarri hori aitortzea, ez hasierako administrazio-jarduketaren bidez. Haien kasuak judizialki baietsi ziren, egiaztatu zutelako haien ordutegiek betetzen zituztela lege txandakako lanerako ezarritako baldintzak. Interesdunak, hala ere, ez zuen egiaztatu bere ordutegiak betetzen duela araudian ezartzen den aldaketa.

Auzitegi Gorenaren arabera, oinarritzko eskubideak urratzeagatik deuseztasuna deklaratzeko, beharrezkoa da eskubidearen funtsezko muina urratzea; ez da aski administrazio-arauak urratu izana, hori aurkaratzeko beste bide batzuen bidez eztabaidatu behar baita.

Kontseiluak ondorioztatu duenez, diskriminazioa egoteko, egoerek berdina izan behar dute, eta modu arbitrarioan eta arrazoi objektiborik gabe tratatu desberdina eman behar da. Aztertutako kasuan, egoerak ez dira berdina, eta, hortaz, ez dago diskriminazio-egoera erreal, arbitrario eta justifikatu gabekorik, ondorioztatzeko ezen deskribaturiko administrazio-jarduketak erabat deusezak direla. Horrenbestez, interesdunak eskatutako ofiziozko berrikuspena ez da bidezkoa.